



**Arartekoaren 2015R-1948-14 Ebazpena, 2015eko azaroaren 4koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politika Sailari gomendatu zaio efekturik gabe utz dezala diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioaren iraungitzea.**

### Aurrekariak

2014ko irailaren 30ean, (...)k Arartekoarengana jo zuen, bere bizilekuan Lanbideren idazki bat jaso ostean. Irailaren 20ko data dauka aipatu idazkiak, eta diru-sarrerak bermatzeko errenta ez berritzeagatiko iraungitze-ebazpena jakinarazi zaio horren bidez. Horretarako arrazoa, ebazpen-idazkian ageri denaren arabera, honakoa da: *“ez zuen jakinarazi 2014/05/05aren lan-jardueraren amaiera”*. Kexagileak adierazi zigunez, hain zuzen ere, Lanbiden ez zuen lan-harreman baten amaieraren berri eman proba-aldia amaitu zenean.

Jaso dugun dokumentazioaren arabera, kexagileak eskatuta hasitako izapideak amaitu ondoren gertatu da iraungitze hori. Bere diru-sarrerak bermatzeko errenta berritzeko izapideak ziren horiek, eta martxoaren 17ko eskaeraren bidez abiarazi zituen.

Kexagileak emandako informazioaren arabera, diru-sarrerak bermatzeko errenta eteteko arrazoitzat jo liteke aipatu zirkunstantzia, prestazioaren titular gisa dituen betebeharrak ez betetzeagatik, baina, berez, ez luke iraungitzea ekarri behar. Bada, urriaren 15ean, Arartekoak idazki bat bidali zion Lanbideri. Bertan, kontu horri buruzko zenbait gogoeta helarazi zitzaizkion. Zehazki, kexaren bi alderdi buruzko interesa agertu genuen.

Alde batetik, Lanbideak kexagilearen jokaera diru-sarrerak bermatzeko errentarako betekizun galeratzat jo izanaren gainean galdetu genuen. Bestetik, etete egoeran zegoen diru-sarrerak bermatzeko errenta berritzeko aukerari buruz galdetu genuen, izan ere, antza denez, zirkunstantzia horrek eraginen bat izan zuen espedientean.

Abenduaren 18an, Lanbideren erantzun-idazkia sartu da.

Berritze-prozedurari buruzko zenbait izapideren berri eman zitzaigun. Jada adierazi dugun bezala, martxoaren 17an eskatu zen prestazioa berritzeko. Gero, apirilaren 25ean, kexagileak lan-jarduera hasi zuela jakinarazi zion Lanbideri. Uztailaren 18an, berritze-eskaerari arreta emateko izapideak hasi ziren (horien artean, uztailaren 18an entzuteko izapide-idazkia igorri zitzaion kexagileari, bere lan-jarduerari buruzko dokumentazioa eskatuz, eta abuztuaren 4an aurkeztu zuen, arrazoibide gisa). Irailaren 8an amaitu ziren izapide horiek, berritze-eskaera ukatzeko ebazpen-proposamenarekin.





Jarraian, diru-sarrerak bermatzeko errenta berritzeko eskaera ukatzeko sakoneko arrazoen berri eman du Lanbidek, termino hauetan:

*“Lan-jardueraren hasiera aztertzean, lan-jarduera 2014ko maiatzaren 5ean amaitu zela ikus daiteke, ez baitzuen proba-aldia gainditu. Egitate hori ez zitzaion Lanbideri jakinarazi, eta entzuteko izapidea egitea erabaki zen. Era berean, dokumentazio-errekerimendua egin zen, berritzeko eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentazioa osatze aldera. Interesdunak, entzuteko izapideari erantzunez, ailegatu zuen ez zekiela nomina entregatu behar zenik lana bukatzean, beraz alegazioak gaitzetsi egin ziren 2014ko abuztuaren 27an.*

*Aplikazio informatikoak adierazten zuenez ez zuela eskakizuna betetzen, Ez-Berritu aukerari lotu zitzaion zuzenean ebazpen-proposamenean, eta horrek ez du etenik egiten uzten berritzeko izapidetzearen barruan.*

*Halaber, ezin izango litzateke prestazioa berritu eta ondoren eten; izan ere, eteteen zenbatzailea zeroan jartzen da berritze bat egiten den bakoitzean, eta ezin da etenik egin berritu aurretik gertatutako arrazoi batengatik. Era berean, aplikazioak ez du uzten berritzen, diru-sarrerak bermatzeko errentaren espedientea etenda dagoenean”.*

Lanbidek, bere erantzunean, ez zituenez Arartekoak lehen idazkian helarazitako gogoetak aipatu (kexagileak betebeharrak bete ez izanari buruzkoak ziren, eta ez duela iraungitzea ekar zezakeen betekizunik galdu ez berritzeagatik), eta espedienteari elementu berriak txertatu zitzaizkionez (erabilitako informatika tresnaren bitarteko iraungitzea), beste idazki bat igorri zitzaion Lanbideri 2015eko martxoaren 5ean, zenbait gogoeta helaraziz horrela. Gomendio honen oinarria dira gogoeta horiek, bai iraungitzeko jarraitutako izapideen gainekoak, bai, bereziki, Lanbidek bere lehen idazkian emandako justifikazioari buruzkoak. Aipatu informatika tresnaren mugen ingurukoa zen justifikazio hori.

Erantzun gabeziaren aurrean, errekerimendu bat igorri zitzaion Lanbideri 2015eko apirilaren 21ean. Bertan, herri-administrazioek Arartekoak egindako informazio-eskaerei epean erantzuteko duten betebeharra gogorarazi zitzaion.

Ekainaren 16an, gure bigarren informazio-eskaerari emandako erantzun-idazkia sartu zen. Lanbidek ez du Arartekoak azaldutako konturik baloratu, eta horrek eragin du gomendio hau.





## Gogoetak

1. Kexagileak 2014ko martxoaren 17an eskatu zuen bere diru-sarrerak bermatzeko errenta berritzeko. Gero, jasotako informazioaren arabera, Lanbidek eskaerari arreta emateko izapideak hasi gabe zituenean oraindik, kexagileak apirilaren 25ean jakinarazi zuen Lanbiden apirilaren 15etik aurrera lan-jarduera hasi zuela. Handik gutxira amaitu zen lan-jarduera hori, ez baitzuen proba-aldia gainditu. Azken egitate hori ez zitzaion Lanbideri komunikatu.

Martxoaren 17ko berritzeko eskaerari arreta emateko izapideak hasita, Lanbidek baliogabetu egin zituen kexagilearen arrazoibide batzuk. Uztailaren 18ko idazkiari erantzuteko aurkeztu zituen arrazoibide horiek, eta bertan adierazi zuen ez zekiela lan-jardueraren amaiera jakinarazi behar zuenik.

Ondorioz, jasotako informazioaren arabera, Lanbidek bere aplikazio informatikoan adierazi zuen kexagileak betekizun bat galdu zuela.

Puntu horretan geratzea gustatuko litzauguke, eta gogorarazi 147/2010 Dekretuko 12.1. artikulua diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidearen titularren betebeharren artean ezarri duela: *“Prestaziorako eskubidea aldatzea, etetea edo azkentzea ekar dezaketen eta ondoren adierazten diren gertakariak sortzen diren unetik aurrera zenbatzen hasi eta gehieneko hamabost eguneko epean udalari<sup>3</sup> gertakari horien berri ematea (...) Prestazioaren zenbatekoa kalkulatzeko oinarritzat erabili diren baliabideak ukitzen dituzten gertakariak, hala nola (...) Hileroko diru-sarreraren motan edo zenbatekoan izandako aldaketak, eta ondare-gehikuntzak edo -murrizketak”.*

Gure ustez, garrantzitsua da adieraztea ezin litekeela betekizun galeratzat jo kexagilearen jokaera, lan-jardueraren amaiera ez jakinarazi izanari dagokiona, eta betebeharrak bat bete ez duela ulertu beharko litzatekeela. Funtsezko bereizketa da hori, izan ere, lehenengo kasuan, eskubidearen iraungitzea izan daiteke ondorioa; bigarren kasuan, berriz, aldi baterako etetea izango da ondorio hori, 18/2008 Legearen 26.1.b) artikulua aplikatuz, zera ezarri baitu eteteko arrazoitzat: *“Titularrak edo haren bizikidetzaren unitateko kideren batek prestazioa eskuratzean bere gain hartutako betebeharren bat aldi batean ez betetzea”.*

---

<sup>3</sup> 147/2010 Dekretua 18/2008 Legearen erreformari buruzko 4/2011 Legeak txertatutako moldaketei egokitu ez zaienez oraindik, "Lanbide" ulertu beharko da "udala" jartzen duen lekuan.



Nabarmendu beharra dago, gainera, ez-betetze horrek bere aurkako ondorioak dakartzala ikuspuntu materialetik begiratuta, lan-jarduera amaitu eta sarrerak murriztean, diru-sarrerak bermatzeko errenta gorako norabidean aldatu beharko litzateke-eta.

Hortaz, kexagileak ez zuen diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularra izateko betekizunik galdu, hau da, ez zuen betebeharrak bete, eta prestazioa aldi batez etetea ekarri beharko zukeen horrek. Era berean, adierazi beharra dago etetea eragin zuen arrazoa desagertuta zegoela Lanbidek espedientea ebatzi zuenean, izan ere, Lanbidek jada bazekien zein zen kexagilearen lan egoera.

2. Bere lehen erantzun-idazkian, Lanbidek adierazi digu diru-sarrerak bermatzeko errenta kudeatzeko erabiltzen den tresna informatikoak ez duela ahalbidetzen prestazioa etetea berritzeko izapidea egin bitartean, ez eta prestazioa etetea ere, behin berritu denean; izan ere: *“Eteteen zenbatzailea zeroan jartzen da berritze bat egiten den bakoitzean, eta ezin da etenik egin, berritu aurretik gertatutako arrazoi batengatik. Era berean, aplikazioak ez du uzten berritzen, diru-sarrerak bermatzeko errentaren espedientea etenda dagoenean”*.

Gure iritziz, ez da zentzuzkoa programa informatiko baten funtzionamenduaren mende uztea legezko zenbait aurreikuspenen aplikazioa, batez ere kontuan hartzen badugu 18/2008 Legearen 12. artikulua diru-sarrerak bermatzeko errentari ematen dion izaera: *“Diru-sarrerak bermatzeko errenta eskubide subjektibo gisa eratzen da, aplikatzekoa den modalitatean prestazioa eskuratzeko berariaz araututako baldintzak betetzen dituzten pertsona guztientzako eskubide subjektibo gisa”*.

Eremu horretan, gure iritziz, oso garrantzitsua da Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzko 11/2007 Legearen baitako arrazoen azalpena gogoratzea, honelaxe baitio: *“Legeriak oinarrizko printzipio bat aldarrikatu behar du, eta horixe hartu behar du oinarri: hau da, konstituzioak eta legeriak herritarrei, eta, oro har, herri-administrazioekin erlazionatzen direnen eskubideei emandako bermeei eutsiko zaiela, Espainiako konstituzioaren 18.4 artikulua dakar betebeharrak hori, legearen esku uzten baitu informatikaren erabilera mugatzea, eskubide konstituzionalen erabilera babesteko.*

*Berme horiei eusteko, ez da aski baieztatzea oinarrizko eskubideak indarrean daudela muga gisa, oinarrizko eskubideak indarrean egote hori baita lege-erreforma honen giltzarria, gure oinarrizko testuaren 9.2 artikuluan finkatzen den sustapen helburuarekin bat etorritik. Horrez gain, beharrezkoa da teknologia hauek modu seguruan aplikatzeko beharrezko diren berezitasunak jasotzea ere”*.





Edonola ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 41.1. artikulua gogoratu behar da, administrazioaren betebeharrak pertsonaltzat ezarri baitu honakoa: *“Oztopoak kentzeko, era horretara, interesdunak beren eskubideez bete- betean baliatzerakoan edo bidezko dituzten interesak errespetatzerakoan, eragozpenik, zailtasunik edo atzerapenik izan ez dadin. Hartu beharreko neurriak hartuko dituzte, beraz, prozedurak izapidetzerakoan okerrik ez izateko eta daudenak kentzeko”*.

Ondorioz, gure ustean ez da egokia indarrean dagoen araudia aplikatzea eragozten duen tresna informatiko baten mugengatik zurriztea kexagilearen diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubide subjektiboa iraungi izana.

3. Iruditzen zaigu betebeharrak bat ez betetzearen ondoriozko etetea ez litzatekeela oztopo izan beharko eskubidea berritzeko orduan, eteteko arrazoia desagertu denean eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrak horretarako betekizunak betetzen jarraitzen badu.

Aintzat hartu behar da beste momentu batean bete izan ez balu diru-sarreraren mailan egondako aldaketak jakinarazteko betebeharrak, hau da, ez berritzea eta horren ondoriozko iraungitzea eragin zuen ez-betetzea beste une batean gertatu izan balitz, hots, diru-sarrerak bermatzeko errenta berritze prozesuan ez zegoen une batean, eskubidea aldi baterako etetea izango zatekeela ondorioa, 18/2008 Legearen 26.1.b) aipatu artikuluekin bat eginez, eta berrabiarazi egingo zatekeela, behin etetea eragin zuten arrazoiak desagertuta, 18/2008 Legearen 26.3. artikuluari jarriki. Beraz, jokaera berberak askoz ere ondorio larriagoak eduki ditzake berritzea izapidetu bitartean gertatuz gero, eta horixe da espediente honetan gertatu dena.

Era berean, gogoan izan behar da gehiegi luzatu dela berritzeko eskaeraren izapidetzea, izan ere, kexagileak martxoaren 17an aurkeztu zuen aipatu eskaera, eta irailaren 8an idatzi zen prozedura horri amaiera eman zion ebazpena, hots, diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungi zuen ebazpena. Kexagileak apirilaren 15ean eta maiatzaren 5ean hasi eta amaitu zuen lan-jarduera, hurrenez hurren.

4. Amaitzeko, garrantzitsua da 147/2010 Dekretuko 38.2. artikuluan jasotako arauzko aurreikuspena ekartzea, zera ezarri baitu: *“Prestazioa ez eteteko, baldin eta prestazioa ematea eragin zuten arrazoiek bere horretan badiraute, berritzeko eskubidea prestazioa azkendu baino hiru hilabete lehenago egiten hasi beharko da.*





*Aurrekoaren ondorioetarako, foru-aldundi<sup>4</sup> eskudunak jakinaraziko dio titularrari, kasu bakoitzean dagokion egunean, eskabidea berritu nahi badu, izapidetzen hasi behar duela.”*

Gure iritziz, Lanbidek agindu hori bete ez duenez, ez baitu gogorarazpena bidali, eta sei hilabete igaro zirenez berritzeko eskaera aurkeztu zenetik prozedura horri amaiera ekarri zion ebazpena arte (diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungiz), kexagileak ezin dezake zirkunstantzia horren ondoriozko hain ondorio larria bizi.

Eskaera izapidetzeko gehiegizko iraupenak bidegabeki egin dio kalte kexagileari, izan ere, Lanbidek azkarrago amaitu izan balitu izapideak, ziur aski, kexagileak diru-sarrerak bermatzeko errenta berritutakoan gertatuko ziratekeen iraungitzea eragin zuten zirkunstantziak.

Gogora dezagun martxoaren 17an aurkeztu zuela berritzeko eskaera; apirilaren 25ean jakinarazi zuela lan-jardueraren hasiera; kexagileak maiatzaren 5ean aipatutako jarduera amaitu zuela, (eta ez ziola Lanbideri jakinarazi abuztuaren 4ra arte). Irailaren 20an idatzi zen prozedura horri amaiera eman zion ebazpena, hau da, kexagileak lan-jardueraren amaiera jakinarazi ondoren eta, ondorioz, eteteko arrazoia desagertuko zatekeen.

Lanbidek emandako informazioaren arabera, kexagilearen eskaerari arreta emateko izapideak ez ziren uztailaren 18ra arte hasi, eta idazki bat bidali zitzaion orduan lan egoerari buruzko informazioa aurkeztu zezala eskatuz. Lanbidek ez du azaldu zergatik ez zitzaion arreta lehenago eman martxoaren 17ko berritzeko eskaerari.

Horregatik guztiarengatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -Ararteko erakundea sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, honako gomendioa luzatzen zaio Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politika Sailari:

### GOMENDIOA

Efekturik gabe utz dezala kexagilearen diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungi duen 2014ko irailaren 20ko ebazpena, eta, prestaziorako betekizunak betetzen direla egiaztatuko balitz, berau berritu dezala.

---

<sup>4</sup> Ikus 1. oharra.